



NEURRI EKONOMIKOAK ENPLEGUA, ENPRESAK ETA EKONOMIA LAGUNTZEKO

-Estatuaren laguntzei buruzko arau-esparruaren malgutasuna: ekonomia babesteko Denbora-Markoa

Batetik, Europako Batzordeak aukera ematen die estatu kideei estatu laguntzen araudian aurreikusitako malgutasun guztia erabiltzeko, herritarrei eta enpresei, bereziki ETEi, laguntzeko neurri azkar eta eraginkorrak hartzeko. Eskura dauden aukera horiek 2020ko martxoaren 13ko Komunikazioan jasotzen dira, COVID-19ko agerraldiari erantzun ekonomiko koordinatuari buruzkoan.

Bestalde, Batzordeak ekonomiari laguntzeko estatu-laguntzen aldi baterako denbora marko bat onartu du (martxoaren 19ko Komunikazioa), Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatian oinarritua, ekonomian asaldura larri bat konpontzeko laguntzei buruzkoa hain zuzen, era honetan estatu kideek mota guztietako enpresentzat likidezia nahikoa dutela bermatzeko eta jarduera ekonomikoaren jarraitutasuna zaintzeko. Apirilaren 4an, Batzordeak Aldi Baterako Markoaren aldaketa bat onartu zuen laguntza mota berriak gehitzen, estatu kideek koronabirusarekin lotutako produktuen ikerketa, entseguak eta ekoizpena bizkortu ahal izateko. Eta maiatzaren 11n berriz, bigarren aldaketa bat egin zen, aplikazio-eremuan birkapitalizazioari eta mendeko zorrari buruzko neurrietara zabaltzeko. Aldi baterako Markoa 2020ko abenduaren amaierara arte egongo da indarrean. Segurtasun juridikoa bermatze aldera, Batzordeak data hori baino lehen ebaluatuko du luzapen hori.

Informazio gehiago

-EBren aurrekontu-arauen malgutasuna: babes-klausula orokorra aktibatzea

Batzordeak aurrekontu-esparrua babesteko klausula orokorra aktibatu du -martxoaren 20ko Komunikazioa, Egonkortasun eta Hazkunde Ituna (IHP) babesteko klausula orokorra aktibatzeari buruzkoa-, aurrekontu nazionaletan behar duten malgutasuna emateko. Hala, estatu kideek krisiari aurre egiteko neurriak hartu ahal izango dituzte, Europako zerga-esparruan normalean aplikatuko liratekeen aurrekontu-eskakizunetatik aldenduz: hau da, neurri zuzentzaileen eta aurrekontu-doikuntzen beharra, aurrekontu-defizit nazionalak edo zor publikoak erreferentziako balioak gainditzen dituenean, BPGaren% 3 eta% 60.

-Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimena: 37.000 milioi euroko inbertsioa kohesio-politikatik

Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimenak estatu kideentzat kohesio-politikatik datozen Erkidegoko funtsetatik 37.000 milioi euro askatu eta mobilizatuko ditu berehala; horretarako, oraindik esleitu gabeko baliabideak bideratzen ditu Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetatik (EIE Funtsak), osasun-sistemak indartzeko, bai eta ETEei eta lan-merkatuari laguntzeko ere. Erregelamenduen aldaketaren bidez,



Batzordea koronabirusaren krisiarekin lotutako gastu guztiak EIE funtsen esparruan hautagarriak izan daitezzen ere egiten ari da. Kohesio gasturako arauak ere malgutasun handienarekin aplikatuko ditu, eta horrek aukera emango die estatu kideei krisiarekin zerikusia duten ekintzak finantzatzeko funtsak beste era batera esleitzeko.

Informazio gehiago

-Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimena Plus (IIRC +)

Inbertsio-ekimena osatzeko asmoz, Kontseiluak bigarren neurri-sorta bat onartu du aurkeztu zuen apirilaren 2an (Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimena Plus IIRC +), bai eta erregelamenduen bigarren aldaketa bat ere, non ezohiko malgutasuna proposatzen baitu Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetatik erabili gabeko laguntza gutzia ahalik eta gehien mobilizatu ahal izateko.

Malgutasun hori, besteak beste, kohesio-politikako hiru funtsen (Eskualde Garapeneko Europako Funtsa, Europako Gizarte Funtsa eta Kohesio Funtsa) arteko transferentzien eta eskualde-kategorien arteko transferentzien bidez eskaintzen da, bai eta kontzentrazio tematikoko betebeharrak betetzetik salbuetsiz ere. Era berean, estatu kideei aukera ematen zaie, salbuespenez eta aldi baterako, 2020-2021 kontabilitate-ekitaldian aplikatzeko kohesio-politikako programetarako % 100eko kofinantzaketa batez besteko bat eskatzeko. IIRC+ paketeak, halaber, prozeduraren etapak sinplifikatzen ditu programa gauzatzeari, finantza-tresnak erabiltzeari eta auditoretzari dagokienez.

Gainera, IIRC+-k laguntza ematen die egoera ahulenean daudenei, Gutxieneko Pertsonentzako Europako Laguntza Funttsaren (FEAD) arauak aldatuz. Adibidez, posible izango da elikagai-laguntza banatzea eta oinarrizko laguntza materiala ematea txartel elektronikoen bidez, bai eta babes-ekipoak ematea ere; horrela, kutsatzeko arriskua murriztuko da. Era berean, Europako Itsas eta Arrantza Funttsaren (IAEF) aldaketei esker, laguntza handiagoa emango zaie EBko arrantzaleei, akuikultura-ekoizleei eta elikagaien ekoizleei (arrantza-jarduerak aldi baterako geldiarazteagatik, akuikultura-ekoizleentzako finantza-laguntza ekoizpena eteteagatik, ekoizleen erakundeei laguntza biltegitratzeko), bai eta estatuko funts sektorialak malguago berresleitzea ere.

-EBren Elkartasun Funttsa hedatzea osasun publikoko larrialdiak estaltzeko

Erregelamendua aldatuta, EBren Elkartasun Funttsaren aplikazio-eremua zabaldu da, osasun publikoko larrialdiak barne hartzeko, hondamendi naturalez gain. Neurriak 800 milioi eurorainoko laguntza gehigarria jarriko du estatu kaltetuenen esku, eta estatuek bakarrik eska dezakete finantza laguntza Funtsetik nazio mailarako.

-Batasunaren aurrekontuaren mobilizazioa: 8.000 milioi euroko desblokeoa 100.000 enpresa txiki eta ertain finantzatzeko

Batzordeak 1.000 milioi euro desblokeatu ditu Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsetik (EIF), Horizonte 2020ren esparruan Cosme Programaren Mailegua Bermatzeko Tresnaren eta ETEentzako InnovFin Bermearen kontura. Diru hori berme bat izango baita Europako Inbertsio Funttsarentzat (EIF), berme bereziak eman ditzan bankuei eta beste mailegu-erakunde batzuei gutxienez 100.000 ETE eta Europako



kapitalizazio ertaineko enpresa txikiei likidezia ematea sustatzeko, 8.000 milioi euroko finantzaketa eskuragarriarekin.

-Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) ekarpena

Europako Inbertsio Banku Taldeak (EIB) 20.000 milioi euro gehigarri mobilizatzeko plan bat du, hain zuzen, COVID-19ren ondorioei aurre egiteko borrokan ari diren enpresa txiki eta ertainen eta kapitalizazio ertaineko enpresen (midcaps) epe laburreko finantzaketa-beharrak estaltzeko, eta 25.000 milioi euroko banku-berme paneuroparra sortzea du helburu.

-Europako Banku Zentralaren ekarpena: Larrialdietarako Erosketa Pandemikoen Programa

Europako Banku Zentralak 750.000 milioi euroko zor publikoaren eta pribatuaren Larrialdietarako Erosketa Pandemikoen Programa abiaraziko duela iragarri du. Erosketak 2020. urtearen amaierara arte egingo dira, eta aktibo hautagarrien kategoria guztiak sartuko dira, lehendik dagoen aktiboak erosteko programaren barruan (APP).

-Batzordearen orientabideak atzerriko zuzeneko inbertsioen kontrolari buruz

Europako Batzordeak Komunikazio bat egin du atzerriko zuzeneko inbertsioak kontrolatzeko orientabideekin, EBko aktibo eta teknologia kritikoak babesteko helburuarekin, batez ere osasuna, ikerketa medikoa, bioteknologia eta azpiegiturak bezalako esparruetan, funtsezkoak baitira segurtasunerako eta ordena publikorako, baina horrek ez du baztertu behar EB atzerriko inbertsioetara irekitzea.

-Aldi baterako laguntza-tresna bat proposatzea, larrialdiak iraun bitartean langabeziaren arriskuak arintzeko (SURE).

Batzordeak Erregelamendu-proposamen bat aurkeztu du, larrialdi batean langabeziaren arriskuak arintzeko aldi baterako laguntza-tresna berri bati buruzkoa (*Support to mitigate Unemployment Risks in an Emergency – SURE*). SUREk finantza-laguntza emango du, Europar Batasunak estatu kideei baldintza onetan emandako maileguen eran, guztira 100.000 milioi euro arte, estatu kideen borondatezko abalen sistema batean oinarrituta. Mailegu horiek lagundu egingo diete estatu kideei enplegua zaintzeko gastu publikoaren bat-bateko gehikuntzei aurre egiten; zehazki, enplegatuentzako lan-denbora murrizteko sistemak sortzearekin edo hedatzearekin eta norberaren konturako langileentzako antzeko beste neurri batzuekin zuzenean lotutako gastuak. Enplegua Berraseguratzeko Europako Sistemaren larrialdiko operalizazioa da SURE tresna, eta Batzordea legegintza-proposamen bat prestatzen ari da horri buruz.

-Denbora-esparru bati buruzko Komunikazioa, lehiaren defentsaren arloko gidalerroak eskaintzeko

Batzordeak Aldi Baterako Esparru bati buruzko Komunikazio bat argitaratu du, egungo koronabirus-agerraldiarekin lotutako larrialdi-egoerei erantzuteko lankidetzan aritzen diren enpresei lehiaren defentsaren arloko jarraibideak eskaintzeko. Enpresen arteko lankidetzatza mugatua ahalbidetzeko jarraibideak dira, ekoizpena modu eraginkorrean

handi dezaten eta hornidura optimizatzeko, bereziki ospitaleko funtsezko sendagaiena. Horri dagokionez, Batzordea prest dago enpresei, salbuespen gisa, berariazko lankidetzaproiektuekiko bateragarritasun-gutunak emateko, eta, horrela, bateragarritasun-gutun bat bidali dio "Europarako Sendagaiak"i, produktu farmazeutiko generikoen fabrikatzaileen arteko borondatezko lankidetzarako proiektu zehatz bati buruzkoa.

-ESCALAR ekimena: etorkizun handiko enpresentzako arrisku-kapitala eta hazkundearen finantzaketa babestuko dituen inbertsio-ikuspegi berria

Batzordeak abian jarri du ESCALAR, inbertsio-ikuspegi berri bat, Europako Inbertsio Funtzarekin batera garatua, etorkizun handiko enpresentzako arrisku-kapitala eta hazkundearen finantzaketa babestuko dituen, Europan haztea eta Europako ekonomia indartzen laguntzea ahalbidetuko diena. 300 milioi euro arte emango die, euren inbertsio ahalmena handitzeko helburuarekin.

-Akordioa Eurotaldean: bilioi erdiko segurtasun sare hirukoitza eta ekonomia suspertzeko funtsa

Martxoaren 26an EBko buruzagiek Eurotaldeari eskatu zioten bi asteko epean COVID-19ren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko neurri sorta aurkezteko. Hiru eguneko negoziazioen ondoren (apirilaren 6-9), Eurotaldeak, eurogunekoak ez diren finantzaministroekin duen osaera zabalduan, txosten bat aurkeztu du, non hiru segurtasun-sare adosten diren langileentzat (SURE), enpresentzat (EIBren Europa osorako berme-funtsa) eta estatuentzat (MEDE), bai eta aldi baterako susperraldi-funts bat prestatzea ere. Guztira, onartutako larrialdi paketeak bilioi erdi euro desblokeatzen ditu pandemiaren aurka borrokatzeko. Frantziak, Alemaniak, Espainiak, Italiak, Herbehereek eta Portugalek lortutako itun baten ostean adostu dute agiria.

Informazio gehiago

-2020ko ekitaldirako 1. eta 2. zuzenketa-aurrekontuak behin betiko onartzea

Europako Parlamentuak Europar Batasunaren 2020rako aurrekontuari egindako bi aldaketak onartu ditu, gastua berrantolatzeko, COVID-19ren testuinguruan lehentasun eta eragiketa berrien finantzaketa bermatzeko, estatu kideei larrialdiko laguntza emateko eta Babes Zibileko Mekanismoa/rescEU indartzeko.

-Nekazaritzako elikagaien sektoreari laguntzeko salbuespenezko neurriak

Nekazaritza-sektoreari eta elikadura-merkatuei laguntza azkarra emateko, Batzordeak ezohiko neurriak proposatu ditu: esnekiak eta haragi-produktuak modu pribatuan biltegitratzeko laguntzak ematea, finantzaketa-lehentasunak birbideratzeko merkatuari laguntzeko programak malgutasunez aplikatzea, eta EBk hainbat sektoretako merkatuak egonkortzeko lehia-arauak salbuestea (adibidez, esne-sektoreak ekoizpena kolektiboki planifikatu ahal izango du eta lorezaintzaren eta patataren sektoreek produktuak kendu ahal izango dituzte merkatutik. Horrelako akordio eta erabakien gehieneko balioa sei hilabetekoa izango litzateke. Kontsumorako prezioen bilakaera gertutik jarraituko da, ondorio kaltegarriak saihesteko).



-EBko etxeei eta enpresei maileguak errazteko banku-pakete bat onartzea

Batzordeak banku sorta bat onartu du bankuek etxeei eta enpresei maileguak ematea errazteko. Bertan, EBko kontabilitate- eta zuhurtzia-esparruen Interpretazio Komunikazioa jasotzen da, baita EBko banku-arauen "konponbide azkarreko" aldaketa espezifikoak ere.

Interpretazio Komunikazioan, Batzordeak bankuak eta gainbegiratze-agintariak animatzen ditu EBko kontabilitate- eta zuhurtzia-esparruen malgutasuna erabiltzera (adibidez, maileguak itzultzeko luzamendu publiko eta pribatuari dagokionez). Era berean, bankuei arduraz jokatzeko eskatzen zaien eremuak nabarmentzen dira (adibidez, akziodunei dibidenduak banatzeari uko eginez edo ordainsari aldakorrek ordaintzeari dagokionez planteamendu kontserbadorea eginez). Komunikazioak gogorarazten du, halaber, bankuek enpresei eta herritarrei nola lagun diezaieketen zerbitzu digitalak erabil ditzaten, besteak beste, harremanik gabeko ordainketak eta ordainketa digitalak egiten.

Era berean, aldaketa-proposamenak aldaketa espezifikoak ezartzen ditu kreditu-erakundeek maileguak emateko eta galerak xurgatzeko duten gaitasuna maximizatzeko, eta, aldi berean, haien erresilientziaren jarraitutasuna bermatzen du. Batzordeak aldi baterako salbuespeneko neurriak proposatzen ditu, hala nola banku-kapitalari buruzko nazioarteko kontabilitate-arauak aplikatzeko egutegia egokitzea, krisi honetan emandako berme publikoekiko tratu mesedegarriagoa ematea, palanka-efektuko ratio-koltxoaren aplikazio-data atzeratzea eta zenbait esposizio palanka-efektuko ratioaren kalkulutik kanpo uzteko modua aldatzea.

-2020ko Seihileko Europarraren udaberriko paketea, berriz bideratuta: Gomendio espezifikoak herrialde bakoitzeko, COVID-19 pandemiari erantzun koordinatua emateko

Maiatzaren 20an, Batzordeak herrialdekako Gomendio espezifikoak proposatu zituen. Gomendio horietan, politika ekonomikoko orientabideak ematen dizkie EBko estatu kide guztiei, pandemiak eragindako arazo larrienei eta hazkunde jasangarria berriz bultzatzeari buruzkoak. Gomendioak bi helbururen inguruan egituratzen dira: epe laburrean, COVID-19 pandemiaren ondorio ekonomiko larriak arintzea, eta, epe labur edo ertainean, trantsizio ekologikoa eta eraldaketa digitala erraztuko duen hazkunde jasangarri eta inklusiboa lortzea.

Gomendioek arlo hauek hartzen dituzte barne: Osasun publikoko inbertsioa eta osasun-sektorearen erresilientzia, enplegua babestea kaltetutako langileentzako errentarako laguntzen bidez, pertsonengan eta gaitasunetan inbertitzea, enpresa-sektoreari laguntzea (batez ere enpresa txiki eta ertainei) eta gehiegizko zerga-plangintzaren eta kapital-zuriketaren aurkako neurriak hartzea. Jarduera ekonomiko berriz bultzatzeko, ekonomia- eta gizarte-ehunari eragindako kalteak arintzeko eta desadostasunak eta desorekak murrizteko, funtsezkoa da Europak erantzun ekonomiko koordinatua ematea. Horrenbestez, ekonomia- eta enplegu-politikak koordinatzeko Seihileko Europarra berreskuratze-estrategiaren funtsezko elementua da.